

BORROKA GOGORRAK GERTATU DIRA NAURSKAIA ETA XELKOSKAIA ESKUALDEETAN, GROZNI HIRIAREN IPARREAN

Mosku Txetxenia bitan zatitu nahian dabil, iparraldea segurtasun eremu bihurtuz

■ Troxev errusiar jeneralak aditzerat eman zuenez, Txetxenia inguruan eratu beharreko segurtasun hesia ia osatuta dago

■ Moskuk agindu du Inguxetiara ihes egindako 110.000 txetxeniarrak bere kontrolpeko lurretara eraman nahi dituela

■ Txetxeniarrek Errusiako SU-25 gerra hegazkin bat bota dute, Urus Martan hiritik hurbil eta pilotua hil da

Erredakzioa / Baiona

IGANDEAN Errusiako eta Txetxeniako armaden artean hasitako borroken inguruan argibide zehatzak jasotzea zaila da. Haatik, prentsa agentzien bitartez jakin zenez, Txetxenia iparraldean ziren atzo borroka gogorrenak gertatu. AFPren arabera, errusiarrek aurrera egin zuten Txetxenian barrena, eta Grozni hiriburutik 20 kilometrorira iritsiak ziren, Naurskaiako eskualdean. Xelkovskaiako eskualdean, berriz, Groznitik 40 kilometrorra zeuden Errusiako tropak. Bi herrialde horietan, armada federalak artilleria, gudu-gurdiak eta gainerako ibilgailu blindatuak erabili zituen.

Txetxeniako iparraldea izan zen, beraz, bi armaden arteko gudukagune nagusia, baina errusiarrek aurrera egin zuten Goragorsk eta Stavropoleko eskualdeetan ere, Ipar Osetiarekiko muga. RIA berri agentziak zioenez, Errusiako Barne Ministerioko elite tropetako (OMON) 300 gudukari iritsi ziren atzo Ipar Osetiara, fronte hau sendotzeko helburuarekin.

SU-25 bat bota dute

Ekialdean, berriz, Dagestango aldean, artilleriaz eraso egin zuten armada federaletakoek. Borroka hauek eragindako biktimen kontuaz, Genadi Troxev jeneral errusiarrek jakinarazi zuen atzo goizean bi soldadu federal hil zirela eta beste zazpi zaurituta geratu. Txetxeniarrek igande arratsean ziotenez, berriz, 70 soldadu hil dituzte.

Atzo arratsaldean, gainerat, txetxeniarrek SU-25 gerra hegazkin errusiar bat bota zuten, Urus-Martán hiritik hurbil. EFEk hegazkinaren aztarnak ikusi zituen. Pilotuak ezin izan zuen paraxuta ireki eta hil zen.



STR-AP

Errusiako Armadako soldaduak, Ipar Osetiako errepublika autonomoan, Txetxeniako frontierantz doazela.

Errusiari oso garesti kostako zaio gerra

■ TXETXENIAREN aurka hasitako gerra oso garesti kostako zaio Errusiari. Are gehiago orain lurreko erasoak bultzatu duen unetik. Kaukasoko Errepublikaren inguruan eta barruan bertan eratzeko asmoa den segurtasun hesiarentzako soilik, mendealdeko aditu militarrek diote 200 eta 750 milioi dolar bitartean be-

har lirakeela gastatu. Lurreko erasoak aurretik, 30.000 soldadu inguru hedatuta zeuzkan Moskuk Txetxenia inguruan, baina beste 20.000 militar beharko dira iparraldean segurtasun eremu bat, hots errusiaren kontrolapeko esparru bat, osatzeko. Gutxienez, beraz, 50.000 soldadu errusiar beharko dira utzi

Txetxenian eta inguruan, eta Moskuk iragarri du hauetatik bakoitzak hilean 1.000 dolarreko sari bat jasako duela, bere soldadaz gain.

Soldaduez gain, material militar ugari baliatu ditu eta baliatu beharko ditu Errusiak. Orain arteko bonbardaketentzat, ehun bat Sukhoi 24 eta 25 gerra hegazkin

erabili ditu, eta datozen egunetako erasorentzat Mig 29ak eta Ka-50 helikopteroak indarrean jartzeko asmotan da. Oronen buru gastu itzelak izango ditu Errusiak, eta ez da batere ziur Defentsa Ministerioaren 2000. urterako aurrekontuarekin, hots 119 miliar errublo (4,7 miliar dolar) diru nahiko izango duen.

Horiek horrela, FMik Errusiari hitz eman dizkion diru-laguntzak garaiz etortzen badira «arazorik ez da izango», adierazi zuen Mikhail Kassino Finantza ministroak. Haatik, ez da errana FMI diruz hazten duten nazioarteko herriek begi onez ikusiko duten maileguz emandako sos horiek gerrarako baliatzea.

Iparraldeko gudukaguneari dagokionez, badirudi Errusiako armadaren helburua dela Terek ibaiaren ertzerat iristea. Ibai horrek Txetxenia osoa zeharkatzen du mendealdetik ekialderaino. Hori

izango litzateke Txetxenia bitan zatitzeko asmoari eustea, errepublikaren iparralde segurtasun eremu bihurtarazita. Ildo horretan uler daitezke Troxek jeneralak atzo adierazitako hitzak,

hots, Txetxenia inguruan eratu beharreko segurtasun hesia ia amaituta dagoela. Segurtasun hesi honekin, Moskuk «terrorista islamistei» eragotzi nahi die Txetxeniatik irtetea.

Zatitzearen estrategiaren egiaztatzea izango litzateke Vladimir Putin lehen ministroaren azken iragarpenera, hots, 100.000 iheslariak beren kontrolpeko lurretara eraman nahi dituztela.